

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Oñatiko Udalak gaitzespen gogorrena azaldu nahi du gure herrian asteburuan ezagutzera eman den eraso sexistaren aurrean, eta bere babesa adierazi nahi die erasoak pairatu duten emakumeei eta haien ingurukoei. Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotako emakumeen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezaketen laguntza guztia ere.

Emakumeenganako indarkeria ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakarien emaitza. Aitzitik, jendarte egituraketa patriarkalak ezarritako emakumeen eta gizonen arteko bereizkeria da, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile. Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamenduak berak.

Oñatiko Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez dugu atsedunik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Erasoak jasan duten emakumeek guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi azaldu behar diegu guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia horren ahalmena.

Horrenbestez, Oñatiko Udalak dei egiten die herritar guztiei indarkeria sexistaren aurkako jarrera irmoa azaltzera eta indarkeria horren biktimei bakarrik ez daudela adieraztera. Indarkeria matxistarik gabeko herri parekidearen alde egingo dugu, bakoitzak bere eremutik baina indarrak batuta.

Oñatin, 2020ko irailaren 13an

Izaro Elorza Arregui
Oñatiko Alkatea

